



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PRENTSARAKO OHARRA

DATORREN URTEAN ERRENTA AITORPENAREN ZIRRIBORROA ZERGADUN “GUZTIEI” EGINGO DEUTSE BIZKAIKO OGASUNAK

- José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako Foru Diputatuak Bizkaiko Batzar Nagusietan emon dau neurri horren barri, 2022an BATUZ sistema derrigorrez ezarteko aukerea emongo dauen Foru Arau proiektuaren ganeko azalpenean.
- Ogasunak iruzur fiskaleko 504 milioi euro azaleratu ebazan 2019an.
- Covid-19aren krisiari aurre egiteko kenkari fiskalen kostua 52 milioi eurokoa izango da.

(*Bilbon, 2020ko bagilaren 4an*). Bizkaiko Ogasuna, datorren urtetik aurrera, errenta aitorpenaren zirriborroa Bizkaiko zergadun “guztiei” bialtzeko aukerea emongo dauen garapen teknologikoan dabil beharrean. José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako Foru Diputatuak iragarri dau gaur goizean, jarduera ekonomikoen errendimenduen kontrolerako sistema integrala ezarriko dauen Foru Arau Proiektua Bizkaiko Batzar Nagusietan azaltzeko ekitaldian. Horrez gain, Arau horrek, zerga betebeharrak betetea errazteko neurriak ezarriko ditu, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera derrigorrezkoa izango dan BATUZ proiektuaren bitartez.

Iruarrizagak azaldu dauenez, Errenta aitorpena sistema bakarra erabilia egin beharko da. Sistema horrek kanal barri bi izango ditu, webgunea eta aplikazio mobikorra. Probetan ari dan eta diseinu “erraza eta intuitiboa” daukan “proiektu pilotuak” Ogasunaren eta zergadunaren artean egin behar diran jakinarazpenak eta komunikazioak ezarteko aukerea emongo dau, NAN elektronikoaren edo daborduko Osakidetzan erabilten danaren moduko BAK identifikazioaren bitartez. Une honetan, Errenta aitorpena eginda bialtzen jake zergadunen “erdiari baino gehiagori”, eta aitorpenaren emaitzea itzultzekoa bada, Bizkaiko Ogasuna maiatzean hasten da itzulketak egiten. Datorren urtean, Bizkaiko ogasunak “hilebete aurreratu” gura ditu itzulketa horreek.

Bere agerraldi luzean, foru diputatua Bizkaiko Batzarretako Ogasun eta Finantzetako batzordearen aurrera etorri da, Soziedadeen Zergari, Ez Egoiliarren Errentaren ganeko Zergari, Persona Fisikoen Errentaren ganeko Zergari, Ondarearen ganeko Zergari eta Zergen ganeko Foru Arau Orokorrari jagokezan foru arauen aldaketa defendiduteko. Aldaketa hori beharrezkoak da 2022an oso-osorik zabalduko dan BATUZ proiektua aurrera eroateko. Aurreikusitako baino urtebete geroago zabalduko da, Covid-19aren eragina dala eta. Bizkaiko herritarrei “denpora gehiago” emon gura jake.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Batzarretako talde guztiak bat etorri dira BATUZ proiektuaren helburuakaz. Horreen artean, “zergadunei emoten jaken arretea hobetzea” eta “iruzur fiskalaren kontrako neurri barriak” apliketea dagoz, Iruarriazagak esan dauenez. Dana dala, EH Bilduk eta Elkarrekin Bizkaia kritikau egin dabe sistemaren ezarpenean gizonen eta emakumeen artean dagon arrakala digitala kontuan hartu ez izana. Eneritz de Madariaga Elkarrekin Bizkaia taldeko bozeroaleak, ganera, “adina” dala eta teknologia barriakaz ondo konponduten ez diran autonomoak zaintzeko eskatu dau. “Eredua egun batetik bestera aldatu gura da”.

Izan be, aurtengo urritik aurrera, “egokitzen joateko” borondatezkoa izango dan BATUZ ereduak, aldaketa garrantzitsuak ditu. Azpimarragarriena, zergadunek neurri teknologiko aurreratuak erabili behar izatea da. Horrek, salmentak ezkutetea saihesten dau, jarduera ekonomikoen errendimenduen kontrolerako TicketBAI izeneko sistema integralaren bitartez.

Arauzko testuaren aurkezpenean, Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak azaldu dauenez, jarduera ekonomikoak egiten dituen persona guztiek, fisikoek edo juridikoek, TicketBAI eskakizunak beteko dituan fakturazinarako softwarea erabili beharko dabe. Hiru foru ogasunek eta Eusko Jaurlaritzak garatu daben software horrek enkriptata dagon eta salmentak ezkutetea saihesten dauen QR kode bat sartuko dau faktura baxotxean. Kode horren bitartez, kontsumitzaileak bere fakturea Ogasunean aurkeztu dan ala ez jakin ahal izango dau.

BATUZ sistema 140 eta 240 ereduetan be oinarrituko da. Une honetan autonomoek zezeilean bete behar daben lehenengoa “hiru hilebetez behin” bialdu beharko da 2022tik aurrera. Eta barria izango dan 240 eredu enpresa guztiek aurkeztu beharko dabe, “egunero, hilero edo hiru hilebetez behin”, enpresaren tamainuaren arabera.

IRUZUR FISKALA

Iruarriazaga, 2019an iruzur fiskalaren kontra aurrera eroandako burrukaren balantzea egiteko be etorri da batzarretara. Ogasun eta Finantza Sailak “504 milioi euro” azaleratu ebazan Iruzur Fiskalaren kontrako Burruka Planaren barruan egin diran “milioi erdi jarduketaren” bitartez. Aurreko ekitaldian “baino iruzur handiagoa” azaleratu da, 2018an “488 milioi euro” azaleratu ziran eta. Azaleratutako zati nagusia, “hiru lauren”, BEZaren tributazioan emondako irregulartasunei jagoke, eta “handiagoa da urtez urte”. Hori dala eta, oso garrantzitsua da “erosketaren tiketa eskatzea”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Bizkaiko Ogasuna “ezelango zalantza barik” gauzatzen ari dan lan hori, bere jarduketaren “ardatz nagusietakoa” da, eta bere helburua, zergadun fisikoak edo juridikoak “jagokona ordaintzea” da, holan “ongizate egoerari laguntzeko”. Iruarizagaren eretziz, Bizkaiak “aurrera jarraitzen dau” iruzur fiskalaren kontrako burrukan, iruzurgileek “gero eta gatxago daukielako”.

Batzarretako taldeen eretziz, Foru Ogasunak aurkeztu dituan zenbakiak “albiste ona” dira. Elkarrekin Bizkaiak, Aldundiak, Bizkaiagaz alkartasun faltea erakusten daben zergadunak erakusten dituan zeozelango “errepikapen tasarik” daukan galdetu dau.

Beste alde batetik, fiskaltasunaren, elusino fiskalaren kontrako burrukaren, eta Europar Batasunaren barruan auzi fiskalen ebazpenerako mekanismoaren hobekuntzaren arloetan informazioa modu automatikoan eta derrigorrez truketeagaz erlazioautako Europa mailako hainbat arteztarauen transposizioaren ganeko Foru Arau proiektuaren barri be emon dau.

52 MILIOI, COVID-19AK ERAGINDAKO NEURRI FISKALEN KOSTUA

Iruarizagak, EH Bilduren galderei erantzunez azaldu dauenez, Covid-19aren krisia dala eta martxan jarritako neurri fiskalek “52 milioi euroko” kostua eukiko dabe. Aldundiak kopuru hori jasotzeari itziko deutso, Bizkaiko enpleoa eta ekonomia bultzatzea bilatzen daben kenkariak dirala eta.

Foru Ogasunaren arduradunak aurreikusi dauenez, Soziedadeen Zergea dala eta, Ogasunak “26 milioi” gitxiago batuko ditu, kuota efektiboaren ez ohiko kenkaria dala eta (%60); beste “3 milioi” “1.200 lanpostu arte” sortzeko kenkariengaitik. Eta, PFEZn egingo diran kenkariak dirala eta, Ogasunak kalkulau dauenez, eragin gehien eukiko dauenak ohiko etxebizitza barriztetako lanak dirala eta egongo dan kenkari fiskala izango da, eta horren eragina “20 milioi eurokoa” izango dala kalkuletan da.

EH Bildu kexau egin da kenkari horreek diru-bilketan izango daben eragin handia dala eta. Arantza Urkaregik zalantzan jarri dau Aldundiak enpresek diru horri ekonomia barrindartzera bideratuko ete daben “bermerik” daukanik. Bere eretziz, foru administrazioa izan beharko litzateke diru hori batu eta inbertidu beharko leukena, bere erespideetan oinarrituta. EAJ-PNVk eta PSE-EEK onartu ez daben arauz besteko proposamen batean, foru gobernua “zergatan dagozan hobariak eta kenkariak barriro aztertzeko eta beharrezkotzak jotzen diranakaz bakarrik jarraitzeko proposamen bat aurkeztea” eskatzen eban koalizio abertzaleak.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LA HACIENDA DE BIZKAIA REALIZARÁ EL AÑO PRÓXIMO UN BORRADOR DE LA DECLARACIÓN DE LA RENTA A “TODOS” LOS CONTRIBUYENTES

- El diputado foral de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, anuncia esta medida en las Juntas Generales de Bizkaia en su explicación sobre el proyecto de Norma Foral que permitirá implantar en el año 2022 el sistema BATUZ de forma obligatoria.
- Hacienda afloró 504 millones de euros de fraude fiscal en 2019.
- 52 millones de euros será el coste de las deducciones fiscales para hacer frente a la crisis del Covid-19.

(Bilbao, a 4 de junio de 2020). La Hacienda de Bizkaia está trabajando ya en el desarrollo tecnológico que permita, a partir del año próximo, enviar un borrador de la declaración de la renta a “todos” los contribuyentes de Bizkaia. El diputado foral de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, ha hecho esta mañana este anuncio en la presentación en las Juntas Generales de Bizkaia del proyecto de Norma foral por el que se establecerá un sistema integral de control de los rendimientos de las actividades económicas, así como medidas para facilitar el cumplimiento de las obligaciones tributarias, por medio del proyecto BATUZ, que finalmente será obligatorio a partir del 1 de enero de 2022.

Iruarrizaga ha explicado que la declaración de la Renta se tendrá que realizar a través de un único sistema con dos canales nuevos, una web y una aplicación móvil. El “proyecto piloto” que se está testando con un diseño “sencillo e intuitivo”, permitirá establecer las comunicaciones oportunas entre Hacienda y el contribuyente mediante un DNI electrónico o una identificación BAK como la que usa ya Osakidetza. Actualmente, la declaración de la Renta es enviada hecha a “algo más de la mitad” de los contribuyentes y es en mayo cuando la Hacienda de Bizkaia comienza a hacer las devoluciones si la declaración sale a devolver. El año próximo, el fisco vizcaíno quiere “adelantar un mes” estos reintegros.

En su larga comparecencia, el diputado foral ha comparecido en la comisión de Hacienda y Finanzas de la Cámara vizcaína para defender también la modificación de las normas forales del Impuesto sobre Sociedades, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, del Impuesto sobre Patrimonio y de la Norma Foral General Tributaria, necesario para encajar el proyecto BATUZ, que desplegará todo su



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

potencial en 2022, un año después de lo previsto como consecuencia del impacto del Covid-19. Se quiere dar “más tiempo” a la ciudadanía de Bizkaia.

Todos los grupos junteros han coincidido con los objetivos del proyecto BATUZ como son los de “mejorar la asistencia a los contribuyentes” y aplicar “nuevas medidas en la lucha contra el fraude fiscal”, según Iruarrizaga. EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia han afeado, sin embargo, que la implantación de este sistema no haya tenido en cuenta la brecha digital existente entre hombres y mujeres. La portavoz de Elkarrekin Bizkaia, Eneritz de Madariaga, ha pedido, además, que cuide a los autónomos que no están familiarizados “por edad” con las nuevas tecnologías. “Se quiere cambiar de modelo de la noche a la mañana”.

Y es que el modelo BATUZ, voluntario a partir de octubre de este año “para irse adaptando”, conlleva importantes cambios. El más crucial es la obligatoriedad del uso de medidas tecnológicas avanzadas por parte de los contribuyentes, que impide la ocultación de ventas mediante el sistema integral de control de los rendimientos de las actividades económicas, el denominado TicketBAI.

En la presentación del texto normativo, el diputado foral de Hacienda y Finanzas, ha informado de que las personas, físicas o jurídicas, que desarrollan actividades económicas deberán utilizar un software de facturación que cumpla los requisitos TicketBAI. Este software, desarrollado por las tres haciendas forales y el Gobierno Vasco, introduce en cada factura un código QR encriptado que impide la ocultación de ventas. Mediante este código, la persona consumidora podrá conocer si la factura ha sido o no presentada a Hacienda.

El sistema BATUZ se apoyará también en los modelos 140 y 240. El primero, que actualmente deben de completar los autónomos en febrero, se tendrá que enviar “cada 3 meses” a partir de 2022. Y el modelo 240, que será nuevo, tendrá que ser presentado por todas las empresas “diaria, mensual o trimestralmente” en función del tamaño de la misma.

FRAUDE FISCAL

Iruarrizaga ha comparecido también, a petición propia, para hacer balance de la lucha contra el fraude fiscal en 2019. El Departamento de Hacienda y Finanzas afloró “504 millones de euros” a través de “medio millón de actuaciones” enmarcadas en el Plan de Lucha contra el Fraude Fiscal. En comparación con el ejercicio anterior, en 2019 se ha afluado “una mayor cantidad de fraude”, ya que en 2018 emergieron “488 millones de euros”. La



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

mayor parte del fraude aflorado corresponde a irregularidades en la tributación del IVA “tres cuartas partes”, que “crece año a año”. Por eso, el diputado ha insistido en la importancia de “reclamar el ticket de compra”.

Esta labor “decidida” de la Hacienda de Bizkaia es “uno de los ejes primordiales” de su labor y tiene como propósito que el contribuyente físico o jurídico “pague lo que le corresponde”, para así “contribuir al estado de bienestar”. En opinión de Iruarrizaga, Bizkaia “sigue avanzando” en la lucha contra el fraude fiscal, ya que los defraudadores “cada vez lo tienen más difícil”.

Para los grupos junteros, los números presentados por la Hacienda foral son una “buena noticia”. Elkarrekin Bizkaia ha preguntado por si la Diputación cuenta con alguna “tasa de reincidencia” que refleje aquellos contribuyentes insolidarios con Bizkaia.

Por otro lado, el diputado ha dado cuenta también del proyecto de Norma Foral de transposición de varias directivas europeas en relación al intercambio automático y obligatorio de información en el ámbito de la fiscalidad, en la lucha contra la elusión fiscal y en la mejora de los mecanismos de resolución de litigios fiscales en la Unión Europea.

52 MILLONES, COSTE DE LA MEDIDAS FISCALES POR EL COVID-19

Iruarrizaga ha explicado, a preguntas de EH Bildu, que el conjunto de medidas fiscales puestas en marcha por la crisis del Covid-19, tendrá un coste de “52 millones de euros”, importe que dejará de percibir la Diputación como consecuencia de la aplicación de un conjunto de deducciones que pretenden impulsar el empleo y la economía de Bizkaia.

El responsable del fisco foral ha estimado que, en relación con el Impuesto sobre Sociedades Hacienda recaudará “26 millones” menos por la deducción extraordinaria de la cuota efectiva (60 %); otros “3 millones” por las deducciones para crear “hasta 1.200 puestos de trabajo”. Y en cuanto a las deducciones en el IRPF, Hacienda calcula que la de mayor impacto será la deducción fiscal por obras de renovación de la vivienda habitual, cuyo impacto calcula en “20 millones de euros”.

EH Bildu se ha quejado del gran impacto de estas deducciones para la recaudación. Arantza Urkaregi ha dudado de que la Diputación tenga “garantías” de que las empresas van a destinar ese dinero para reactivar la economía. Ha abogado por que sea la administración foral la que recaude e invierta en base a sus propios criterios. En una proposición no de norma que ha sido desestimada por PNV y PSE-EE, la coalición abertzale proponía que el



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Gobierno foral “revisase las bonificaciones y deducciones existentes en los distintos impuestos y que presentase una propuesta de mantenimiento de únicamente las que se considerasen necesarias”.